


Noaia!!



Sorospen ikastaroa
antolatu du DYAk



Joseba Errasti Aginagako ile-apaintzaile gaztea
Llonguerasen ikasle aurreratua

ERRETEGIA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA



Egunero irekia.
arratzain@telefonica.net

Arratzain Zahar Baserria · Telf: 943 36 66 63 · 20170 USURBIL

www.noaua.com

Albisteak edizio jarraituan

Zorion-agurren tartea

Eztabaida foroak

Agenda

Zerbitzuak

Eguraldia

Aldizkaria, on line

Usurbildarrentzat eginiko webgunea

Usurbilgo HAUR ESKOLA



OGASU
HELVETA



ELKARPURA
EKOLOGIKOA



JANTOKIA



ZERBITZU
PEDAGOGIKOA
GURASO ESKOLA



EKIMEN
BEREZIAK

HAUR HEZKUNTZAKO 1. ESKOLA
4-5 URTE ETARTERKO HAURRICKI ZUZENDUA
2004, 2005, 2006. urtean
joko eta jantoki elkarrekin

NON
Kalexarren

ORDUTEGIA
7.30-19.00

EGUTEGIA
astelehenetik ostiralera
Irailaren hasieratik Uztaila bukaera arte

INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA
Martxoaren 1etik apirilaren 28ra
9.30etik 12.00etara

JARDUNALDI IREKIAK
Martxoak 7 arratsaldeko 19.00etan
943 374 061



Txirrikitutik !

2004ko azaroan Txokoaldeko auzotarrek ezusteko handia hartu zuten Bekoerrota baserria erretzen ari zela ohartzean. Ordukoa duzue argazkia. Ordu eta erdiz aritu ziren suhiltzaileak sua itzaltzen. Ondare ikuspegitik, galera handia suposatu zuen baina aldameneko bizilagunei esker (suhiltzaileei sua nondik eta nola itzali azaldu baitzieten) errota salbatzea lortu zen, ez baitzen erabat desegin. Dinamo konpartimentu bat beherago dagoenez hobeto geratu zen. Dinamo honek garai batean argindarra sortzen zuen auzorako. Teilatua berriz guztiz erre zen.

Bekoerrota Torreko errota edo Zatarainerrota bezala ere ezagutua, Zatarain familiarena da. "Usurbilgo baserriak eta baserritarrak" liburuan aipatzen denez, 1916an Bekoerrotaren jabea Anbroxio Zatarain zen eta honek bi argindar-generadore jarri zituen uraren indarra argindarra bezala bilakatzeko. Errotari bezala berriz, aurrenik Juan Joxe eta Nikolas Izeta aritu ziren eta ondoren Joxe Izeta Olozaga. Azken honek 1963an utzi zuen eta berarekin batera errotaren jarduera amaitu zen.

Zalao Arnaiz Ibarguren



2004-11-14, Bekoerrota baserria, Txokoalde

Noaia!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaia.com / www.noaia.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaia.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaia.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaia.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaia.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Bordaerri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkietza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

SOROSPEN IKASTAROA ANTOLATU DA **5. OR.**

JOSEBA ERRASTI ILE-APAINTEAILEA **6. OR.**

ETORKINAK USURBILEN **8. OR.**

Usurbilen, guztira, 158 dira atzerititik hona bizitzera etorri direnak. Ekuadorren dute jaioterria gehienek. Errumania, Portugal, Argentina eta Kuba atzetik, hurrenez hurren.



HEGAZTI-GRIPAEZ HITZ BI **10. OR.**

FILM LABURREN PROIEKZIOA SUTEGIN **12. OR.**

INAUTERIAK IRUDIETAN **13. OR.**

UDARREGIKO IKASLEAK PASAIAN **14. OR.**

AGENDA, DEIALDIAK **17. OR.**



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea!



IDOIA TORREGARAI

Ikuspegi kontrajarriak

Igande honetan banatuko diren Oscar sarietan izendatuta dago Munich pelikula (Film eta Zuzendari onena).

1972ko Olinpiar Jokoetako palestinarrek egindako erasoari erantzuteko Israelgo zerbitzu sekretuek aurrera eramane zuten mendekua erakusten du film honek. Eta noski, palestinar eta israeldarren auzia azaltzen den heinean, hautsak harrotu ditu bazter guztietan. Are gehiago Steven Spielberg (jatorri judua duena) zuzendu duela kontuan hartzen bada. Izan ere, pelikula honek Israelen jarrera moralik gabekoa dela agerian uzten baitu nolabait.

Ondorioz, Ameriketako Estatu Batuetan oso indartsua

den juduen lobbyari (zer esanik ez israeldarrei) izugarriko mina egin dio Israelgo gobernuak martxan jarri zuen misio hau eta palestinarrek daramaten borroka maila berdinean agertzea. Ez pentsa, ordea, palestinarrek pozik daudenik. Beraien ustez, filma juduen alde agertzen da, eta arabiarren aurkako hitzaldia da, okupazioaren biktimaren herri oso bati gizatasuna kentzen diolako.

Bi ikuspegi kontrajarri arazo berdinen aurrean. Urrutira ez da joan beharrik horrelako zenbat dagoen konturatzeko. Kasu honetan, behintzat, milioika pertsonen gaia ezagutzeko aukera izan dute, palomita batzuen laguntzaz bada ere. Beste askorentzat sarrerak ere ez dira existitzen...

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idolia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

Ika-mika!

Kartzeletako egoerak okerrera egin du

Azken urteotan kartzeletako egoerak asko egin du okerrera, Paris eta Madrilgo gobernuak kolektiboari politika errepresibo batean tematu baitira.

Jada lagun gehiegi galdu ditugu kartzeletan eta Ibarretxe, hirukoak eta alderdi espainoliek behin eta berriz azken bi urte erdi hauetan hildakorik egon ez dela nabarmendu arren, Kotto oso gaixo zegoela jakinik atxilotu, dispersatu eta hil zutenak eurak izan zirela gogorarazi behar diegu.

Gaur egun 670 euskal preso politiko daude gaitibu 4 estatutako 88 kartzelatan. Preso horietatik 11 bakarrik daude Euskal Herrian.

Gainera, 2003tik 8 pertsona hil dira, horietatik hiru presoak ziren eta beste bostak senide edo lagunak, bisita bat egitera zihoazanak. Guztira, 20 preso hil dira eta 16 senide edo hurbileko. 2005 urtean 29 istripu gertatu dira errepideetan eta hauetan 74 senide edo lagun zaurituak gertatu dira. Presoak batez beste Euskal Herritik 724 km-ra daude eta beren familiarrekoak odoluste ekonomiko izugarri bat pairatu behar daude.

Espainiar eta frantziar gobernuak aurreko-

en ibilbidea jarraitzen dute: zigorrak ugaritu, isolamendua inposatu, komunikazioak hamar pertsonetara mugatu, gaixo dauden eskubideak urratu, hezkuntzari eta euskararen erabilerari trabak jarri, kartzelaldia murrizteko aukerak eta legeek emandako onurak ezabatu, espetxetik kaleratzea galarazteko prozesu berriei hasiera ematera iritsi arte. Euskal Herriagatik lan eta borroka egiteagatik espetxeratu gintuzten, geure herriaren askatasunaren alde lan egiten jarraitzeagatik zapaltzen gaituzte, geure eskubideak ukatu eta urratzen dituzte eta isolamendu politikoa ezartzen digute.

Isolamendu hau ahalbidetzeko dispersioa mantentzen dute, hau da, PSOEn esker eta PNVren laguntzarekin hamarkada eta erdiz pairatzen ari garen politika kriminala. Dispersio hau mendekuan eta presoenganako indarkerian oinarritutako erabaki politikoaren esanetara dago.

Gure oinarritzko eskubideez gain, gure eskubide politikoak, biltzeko eskubidea, hausnartzekoa, debate politikoan ekarpenak egitekoa eta Euskal Herriaren inguruko erabakietan parte hartzekoa zapaltzen dizkigu-

te. Horregatik, aspaldidanik kolektiboaren aldarrikapena da Euskal Presoak Euskal Herrira, amnistiaren aurreko pausu bezala.

Gatazka politiko batek ezinbestean izaera politikoa duen konponbidea behar du, hori dela eta, gatazka honen gainditzea bazterketarik gabeko elkarrizketa eta negoziazio politiko baten prozesuaren emaitza bezala lortuko da soilik.

Ezker abertzaleak eta ETA erakunde armatutik jadanik planteatu da gatazka gainditzeko beharrezkoa den metodologia, hau da, bi mahairen sorrera: bata Euskal Herriko agente politiko, sozial eta sindikal guztien artekoa, eta bestea, ETA eta bi estatuen artekoa.

Gakoa autodeterminaziorako eskubidea da, eta errepresioa momentu hauetan bere une gorenean badago ere, Euskal Herriak hitza izan dezan aukera dago borroka mantentzen dugun bitartean eta indarrak batzen jarraitzen badugu marko berri baten alde, zeinak euskal herritar guztion eskubideak kontuan izango dituen Euskal Herri independente, sozialista eta euskaldun bat lortu arte.

Ramon Uribe, Langraitzeko espetxetik

Sorospen ikastaroa antolatu du DYAk

Martxoaren 13an hasiko da eta Udarregi ikastolan egingo da

Martxoaren 13an hasi eta martxoaren 31n amaituko da sorosle eta lehen sorospen ikastaroa. Astelehenetik ostiralera, Udarregi ikastolan. Herritar guztiei irekita dagoenez, edonork har dezake parte. Matrikularen prezioa 75 eurokoa da. Baina ikastaro hau gainditzen duenak, EHUrako bi kreditu jasotzeko aukera izango du.

Ikastaroaren iraupena hiru astekoa izango da. Martxoaren 13an hasiko da arratsaldeko ordutegiarekin: 19:30etik 21:30era, astelehenetik ostiralera. Ikastaroa Udarregi ikastolan egingo da eta ikasgaiak euskaraz eskainiko dira.



BIHOTZ ETA BIRIKA SUSPERKETA, ZAURIAK, HAUSDURAK, ERREDURAK...
ARRISKU EGOEREI AURRE EGITEKO BALIOGARRI DA IKASTAROA.

SOROSPEN IKASTAROA

"Ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle Titulua eskuratuko du"

Kontuan izan ez dela beharrezkoa aurrez ezagupenik izatea.

Egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei aurre egiteko funtsezkoa da era honetako ikastaroa egitea. Bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausdurak, erredurak...

Ezagupen oso arruntak baina guztiz lagungarriak, oso modu eroso eta atseginean ikasteko modukoak. Gainera, alde teorikoa eta praktikoa landuko dira.

Ikastaro amaierako frogak gaindi-

tzen dituenak Sorosle Titulua eskuratu du. Ez hori bakarrik. Ikastaro hau gainditzen duenak, EHUrako bi kreditu ere jasoko ditu.

Matrikularen prezioa, ikastarorako txostena barne, 75 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da, ikastaroaren beraren kalitatea bermatzearen.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

LATAILLADE ITURGINTZA

CASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxoa 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

LATXA
kateak denda

Janari prekozinatua
Kongelatuak
Bertako produktuak

Salgaiak: E. Urdul · Tel. 943 301 803

Zendoia

Kale Nagusia 35 · 943 37 40 21

txirriStra

KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400

pintxoak
ogitartekoak
plateak konbinatuak

TABERNA

Joseba Errasti, Aginagako ile-apaintzaile gaztea “Llonguerasen ikasle izatetik, bere lan-taldeko irakasle izatera pasa naiz”

Donostiako akademia batean ikasi eta 2004ko urrian Bartzelonara joan zen. Orain, Llonguerasen lan-talde tekniko kide da. Honi esker, Joseba Errastik beste mundu bat ezagutzeko aukera izan du. Astero orrazten ditu telebistako izarrak eta zinemako izen handi batzuk apaintzen ere ibili da. Afizioa txikitatik datorkio. Amona orrazten eta panpinei ilea mozten hasi zen haurra zela, eta urrats handiak eman ditu oso denbora gutxian.

NOAUA! Non egin dituzu ikasketak? Eta nolatan joan zinen gero Bartzelonara?

Joseba Errasti. Donostian hasi nintzen “Guallar” akademian. Bi urte egin nituen, oinarritzkoa ikasten. Bi urte horietan, arratsalde, hiru ile-apaindegi ezberdinetan egiten nuen lan. Ile-apaindegi horietan ikastaroak ematen zizkiguten. Akademian amaitu nuenean, Bartzelonara joan nintzen, 2004ko urrian hain zuzen. Hamabost egun Llonguerasekin egin nituen, eta beste hamabost Cebadorekin.

Lehen hamabostaldiko bigarren asteartean, Llonguerasek bere lan-talde teknikoan sartzeko aukera eman zidan, eta onartu egin nuen proposamena, hemen inguruan ez baitago horrelako lanik. Lehen hilabetea ikastaroak egin genituen, eta azterketa bat gainditu ondoren Llonguerasen lan-talde teknikoan hasi nintzen lanean.

Lan-talde horrekin denetik egin dut: Cibeles, Gaudí, telebista saio ezberdinak... “Operación Triunfo” saioak orraztu ditut, “Alla tú” saioak ere astero, Ana Rosaren programan ere ibili ginen, Madrilén... *Friki*



2004KO URRIAN BARTZELONARA JOAN ZEN IKASTERA.
ORAIN PUNTAKO PROFESIONALEKIN ARI DA LANEAN.

handienekin ere bai: Belen Esteban, Lequio... Jesus Vazquez asteartero orrazten dut. Eta lehen, “Crónicas Marcianas” saioak ere astero orrazten genituen.

JOSEBA ERRASTI

“Llonguerasen taldean 46
kide gara eta 6 idazkarik
laguntzen digute”

N. Llonguerasen lan-talde horren zeregina zein da?

J. E. Guk Llonguerasen ardurapean dauden taldeak ikuskatzen ditugu; 46 gara eta 6 idazkarik laguntzen digute. Normalean zein talde dagoen ahul ikuskatzen dugu, eta gero haientzat eta kanpokoentzat ikastaroak antola-

tzen ditugu. Horrelako ikastaro batean hasi nintzen ni, eta orain ni naiz irakasle. Horrez gain show-ak, bideo-klipak, pasarelak, pasarela pribatuak, Llonguerasen garaiko argazkietako orrazkerak... egiten ditugu. Eta lan-talde tekniko kide bakoitzak ile-apaindegi bat dugu geure zuzendari-tzapean.

N. Nolakoak dira famatuak?

J. E. Denetik dago; batzuk oso umore onekoak dira, beste batzuk txarrekoak, oso lehorrak dira beste zenbait... Ile-apainketan ez dago askorik kontatzeko, platoan agian gehiago. “Crónicas Marcianas” saio-koek, adibidez, gezurra badirudi ere, platotik kanpo oso harreman ona zeukaten.

Angelina Jolie eta Tom Cruise, orraztu dituen artisten artean

Donostiako akademia batean ikasten hasi eta oso denbora laburrean ospe handiko profesionalekin ari da lanean. Honi esker, "artista" ugari ezagutzeko aukera izan du Joseba Errasti gazteak.

NOAUA! Mundu arrosak ez du fama onik gure artean, gero errealtatean jarraitzaile asko baditu ere. Nolakoa da mundu hori?

Joseba Errasti. Dena oso faltsua da eta teloiaren atzekoa ikusi eta gero, gehiago. Denen bizitza antzezlan hutsa da, errealtatean ez dira horrela. Bizimodu hori famatu izateko probokatu dute.

N. Bartzelonarekin alderatuta, hemen gaizki orrazten al gara?

J. E. Bakoitzak bere estiloa dauka. Nahikoa utziak gara herrian, hala ere. Baina nik ezin dut beste profesionalen lana kritikatu. Ezberdina da.

N. Zein famatu orraztuko zenuke?

J. E. Lehendik orraztu ditudanetatik berriro orraztu nahi ditudanak normalean orrazten ditudanak dira, programetakoak direlako.

Orraztu ez ditudanetatik, Albako Dukesa. Ilea konpontzeko beharra izateaz gain, egoera nahiko arraroan aurkituko nintzateke bera orrazterako momentuan. Eta kontatzeko izango dituen istorioak...

N. Orraztu duzun pertsonarik eza-gunena?

J. E. Nazioartekoan artean, Angelina Jolie. Tom Cruise ere bai. Bartzelonan, Jesus Vazquez; Madrilen Alaska edo Ana Rosa Quintana orraztu ditut. *Frikiena*, Yola Berrocal. Hemen lanean nengoenean, Amaia Montero eta Alex Ubago orraztu nituen. Martxoan, aldiz, Dominikar Errepublikara noa "MTV Latino" sari banaketakoak orraztera.



DOMINIKAR ERREPUBLIKARA
JOANGO DA HILABETE HONETAN.

Martxoan, edergintza ikastaroa KzGunean

Internet ikastaroaz gain, ile-apainketa eta edergintza ikastaro berezi bat ere antolatu da KzGunean. IT txartela lortzeko azterketa eguna ere zehaztuta dago. Martxokoa 17an izango da.

Internet ikastaroa 20 ordutakoa da. Bi aukera izango ditugu martxoan: bata, martxoaren 6tik 17ra, astelehenetik ostiralera 16:00etatik

18:00etara; bestea, martxoaren 20tik 31era, astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara.

Edergintzari buruzko ikastaroa
IT Txartela lortzeko hurrengo azterketa martxoaren 17an, ostirala, izango da, 18:00etatik 20:00etara.

Baina ikastaro bereziak ere eskaintzen dira KzGunean. Martxoan, ile-apainketa eta edergintzarako ikasleen-

tzat ikastaroa antolatu da, 10 ordukoa. Martxoaren 6tik 10era, 18:00etatik 20:00etara.

KzGunea, bestalde, arratsalde irekiko da martxoan. Astelehenetik ostiralerara, 16:00etatik 20:00etara. KzGunearekin harremanetan jartzeko:

Telefono zenbakia: 943 361 412

E-posta: tutor.usurbil@kzgunea.net

Webgunea: www.kzgunea.net.

Larazaintza
Eortak
URTINEA
urtinea@euskalnet.net
Larazak
Larazak
Landareak
San Esteban
943 362 255
943 366 054 fax

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3. 943 361 108
Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Jaioterritik Usurbila, bizimodu hobe baten bila

Pertsona asko dira jaioterria utzi eta atzerrian bizimodu berri bati ekiten diotenak. Norbere egoera oso ezberdina den arren, asko dira aldaketetara egokitzeko oztopo ugari dituztenak. Usurbilen, guztira, 158 dira atzeritik hona bizitzera etorri direnak. Ekuadorren dute jaioterria gehienek. Errumania, Portugal, Argentina eta Kuba atzetik, hurrenez hurren.

Euren jatorriko herrialdetik atzerria bizimodu hobe baten bila. Etorkin asko dira ibilbide luze hori egiteko prest daudenak, norbere eta inguruko bizi-kalitatea hobetu nahian. Edozein kasutan, arazo ugari izaten dituzte askok, ibilbide hori egiteko edota bizileku berrira egokitu eta integrazterakoan.

Atzeritik etorritako

158 lagun bizi dira Usurbilen

Azken urteotan, 158 atzeritar etorri dira gure artera bizitzera. Ekuadorren dute jaioterria gehienek. Errumania, Portugal, Argentina eta Kuba atzetik, hurrenez hurren.

LANBIDE OHIKOENAK

“Emakumeak etxeko lanetan; gizonezkoak piperretan, eraikuntzan eta ostalaritzan. Horiek dira ogibide nagusiak”

Horietatik batzuk laguntza behar izaten dute; beste batzuk, ordea, ez. Ongizate departamenduko gizarte laguntzaileek azaldu digutenez, “herrian etorkin asko daudela suma daitekeen arren, gutxi dira gure bulegoetatik igarotzen direnak”. Hain zuzen, etorkin bakoitzaren egoera eta errealitatea oso ezberdina da.

Etxebizitza eta lana topatzea, etorkinen kezka nagusiak

Laguntza eskatzen duten etorkinei

begira, haien kezka nagusiak etxebizitza eta lanpostu bat aurkitzea dira. Etxebizitza eskuratzeari dagokionez, kasu askotan, etxe jabeek oztopoak jartzen dizkiete. Hain zuzen, bertakoei baino erreparo gehiago sortzen diete etorkinek etxebizitza jabe askori. Askotan, lehendik izandako esperientziaren arabera izaten da hori. “Etxebizitza jabeek alde aurretik esperientzia txarren bat izan badute, ez dituzte pisuak alokatzen; bestela, bai” adierazi digute Gizarte Zerbitzuetatik. Etxe jabe batzuk etorkinekiko fidagarritasuna kolokan jar dezakete, diru-sarrerara handirik ez dutelako edota jarrera mailako arrazoiak direla tarteko. Etorkinen artean denetarik dagoen bezala, etxe jabeen artean ere, denetarik dago. Gizarte Zerbitzuetatik salatu dutenez, “ez dago kontrolik etxeak alokatzerakoan”. Hain zuzen, garestiegia zaie etorkinei alokairua ordaintzea. Etxebizitza bat erostea, zeresanik ez.

Pisua eta horrek sortzen dituen beste hainbat gastuei aurre egiteko irtenbidea lanpostua aurkitzean datza. Emakumezkoak etxeko lanetan eta gizonezkoak piperretan, eraikuntzan eta ostalaritzan. Horiek dira Usurbilen bizi diren etorkinen ogibide nagusiak.

Haur gehienak

Udarregin ikasten dute

Behin etxebizitza lortu, lanean jardun eta oro har, hemen bizi beharrak bi aukeren artean hautua egitera behartzen ditu etorkinak. Batzuk, haien kultura bereko hartu emanak sendotzen dituzte; besteek, bertako kulturen integratzen dira. Integrazio bide horretan, Usurbilen kasuan behintzat, giltzarrietako bat herriko ikastola izan daiteke. Herriko haur eta gaztetxo gehienek Udarregin ikasten baitute. “Haurrak dira, guraso askoren hartu emanen arteko zubia” adierazi dute gizarte laguntzaileek. Bertatik jakinarazi digutenez, etorkinek, orohar, integrazio arazo handirik ez dute izan.



ETORKIN ASKOK PIPERRETAN EGITEN DUTE LAN.

Usurbildar berriak

NONDIK?

ZENBAT?

Ekuador	35
Errumania	20
Portugal	19
Argentina	13
Brasil	11
Kuba	10
Pakistan	8
Bulgaria	6
Maroko	6
Frantzia	5
Kolonia	4
Peru	4
Nigeria	3
Alemania	2
Britainia Handia	2
Albania	2
Bolivia	1
Venezuela	1
Belgika	1
Errusia	1
Mexiko	1
Polonia	1
Herbehereak	1
Dominikar Errepublika	1

DATUAK: USURBILGO ONGIZATE DEPARTAMENDUA.

Rosa Huertas, 2001ean Ekuadortik hona etorria

“Gizarte Zerbitzuek eta Caritasek asko lagundu didate”

NOAUA! Noiz eta nola etorri zinen herri honetara?

Rosa Huertas. Ekuadortik Donostiara bakarrik joan nintzen eta *interina* gisa aritu nintzen lanean. Zazpi hilabetera etxe-jabeak paperak egin zizkidan. Gero, egunkarian iragarki bat jarri nuen baina lanposturik ez nuen lortu. Mojen bidez Usurbilen lanpostua lortu nuen. Gero, nire senarra etorri zen. Gizarte Zerbitzuek eta Caritasek asko lagundu didate, bereziki, nire seme-alabak etorri zirenetik.

N. Hemengo bizimodura ohitu behar izan duzu. Zertan nabaritu dituzu ezberdintasunak?

R. H. Janaria ezberdina da. *Interina* bezala lan egiten nuen etxeko emakumeak esan zidan, segituan ohitu nintzela hemengo janarira. Gainerakoan, ni nintzen Usurbila atzerritik etorri zen lehenengotakoa. Oso arraro sentitzen nintzen, herritarrak bertako jendea ikustera ohituta baitzeuden, baina atzerritarrak ikustera ez. Denborarekin, ordea, ohitzen joan nintzen ni eta baita jendea ere. Nere seme-alabei, hala ere, hemengo bizimodura egokitzea asko kostatu zaie.

N. Etxebizitza aurkitzeko zailtasunik izan al duzu?

R. H. Seme-alabak ekarri nituenean hasi nintzen pisu bila. Usurbilen etxebizitza aurkitu ezinik nabil. Orain dela hiru urtetik lagun batzuk utzitako pisuan bizi naiz. Pisuak alokairuan jartzen dituztenei inoiz seme-alabak izan dituztela ez ahaztea eskatuko nieke; haiek egoera beretsuan egon baitaitezke. Zenbat garen



DONOSTIARA JOAN ZEN LEHENIK BAINA AZKEN URTEAK USURBILEN EGIN DITU.

galdetzean, hiru seme-alabentzat pisua txikiegia dela baiteritzote.

ROSA HUERTAS

Atxegalden bizi da, hiru seme-alaba eta anaiarekin batera, eta adineko pertsonak zaintzen ditu

N. Nola ikusten duzu zure etorkizuna?

R. H. Etorkizuna ez dut programatu. Ekuadorren dena utzi eta hona etortzea asko kostatu zitzaidanez, beste hainbeste kostatuko litzaide orain hara itzultzea, hemengoak faltan botako nituzke.

Usurbilen oso jatorrak diren eta asko maite ditudan lagunak egin ditut. Pertsona horiek nire sendia, nire laguntza eta dudan guztia dira. Horregatik, denei bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet.

N. Atzerritik hona bizitzera datorren pertsona bati ze gomendio emango zenioke?

R. H. Integratzea norbere izaeraren esku dago; lortuko duzun guztia zerorrek irabazi behar duzu. Itsasoa zeharkatu badugu, itsasoz bestaldeko guztia han utzi eta hemen, berriz, hutsetik hasi behar da. Errealista izan behar duzu, lanari dagokionean; jaioterrian lanpostu ona izanda ere, atzerrian, dagoenera moldatau behar duzu.

ARITZ GORRITI

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

ITURGINTZA
JOSEBA ARANGUREN
☎ 943 830 072
☎ 659 883 912

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Oilaskoa ez da lehen bezala saltzen

Ez dute iritzi bateratua, baina guztiek gauza bera diote: kontsumoaren jaitsiera nabarmendu egin da hegazti-gripearen ondorioz. Herriko zenbait harategi eta saltokitan egon gara H5N1 delako birusak ekarri dituen ondorio-etaz galdezka.

“Gutxiago saltzen da. Esan dute ez dagoela arriskurik, baina hala ere jendeak gutxiago kontsumitzen du”, hala esan digu Imanol Txapartegik, Aginagan duen saltokian. Aliprox supermerkatuan ere nabarmendu dute jaitsiera: “Ez dakit horregatik den, baina lehen Usurbilen oilaskoa besterik ez zen jaten eta azkenaldian ez da batere saltzen”.

Duela urte batzuk behi-eroen kontuarekin antzeko polemika izan zen eta orduan ere kontsumoan jaitsiera nabaritu zen. Gai honen inguruan ez datoz guztiz bat harakinak.

Txapartegiren ustez ordukoa okerragoa izan zen: “orduan zalantza asko baitzeuden eta orain, ordea, nahikoa argi dago jaterakoan ezin garela kutsatu”. Santueneko Esnaola harakinak uste du agian oraingoak eragin handiagoa izan duela, baina antzekoa: “Gauzak ahaztu egiten dira eta”.

“Arriskurik ba ote dagoen galdetzen digute”

Oraingoaz gure inguruan ez da birusaz kutsaturiko hegaztirik aurkitu (Nafarroan hildako ahatea beste arrazoren batengatik hil zen).

Dena dela, kontsumitzaileak kezkatuta daude, ez baitute lehen adina erosten. Hala ere, orokorrean hegaztia nondik datorren ez dute galdetzen erosleek, saltoki batean soilik esan digute galderaren bat izan dutela: “Nongoak diren baino gehiago, ea arriskurik ba ote dagoen galdetzen



ASIAN, KUTSATUTAKO HEGAZTI UGARI HIL EGIN BEHAR IZAN DITUZTE.

dute. Baina oilaskoena oso zentralizaturuta dago, banatzaileek ekartzen baitute”.

NEREA KORTA

Alkorta harategi-urdaitegia, Atxegalde “Behi-eroen fenomeno antzekoa izan zen”

Aipatu dugun bezala, hegazti-gripearen kontuak eragin handia izan du dendetan. Atxegaldeko Alkortan beste produktu batzuk ere saltzen dira. Haragiaren kontsumoan, ordea, jaitsiera nabarmendu egin dela adierazi digute.

NOAUA! Hegazti-gripearen ondorioz, kontsumoan jaitsiera handia eman al da?

J. J. Alkorta. Bai, nabarmendu da jaitsiera. Oraindik ez da hainbesterainokoa izan, baina nabarmentzen ari da.

N. Behi-eroekin antzeko fenomeno eman zen, ezta?

J. J. A. Bai, nire ustez antzekoa izan zen. Horrelako zerbait gertatzen denean nabaritu egiten da, gauza guztiekin nabaritzen da.



ALKORTAK ERE NABARITU DU KONTSUMOAREN JAITSIERA.

N. Kontsumitzaileak etorri al dira hegaztia nongoa den galdezka?

J. J. A. Ez, oraindik ez behintzat, ez zait inor galdezka etorri.

Hegazti-gripea, horixe, bada: hegaztien gaitza

Sarean informazio asko dago hegazti-gripearen inguruan. Zarautzko Rafa Saiz Elizondo ornitologoak idatzi interesgarria sareratu berri du sustatu.com webgunean. Hemen duzue bere analisia.

Asaldatuta gauzkate egunkari eta telebistek, badatorrela eta badatorrela. Eta berez behar bezain gaiztoa ez bada ere, egingo dugu guk geuk gaizto. Baina, orangoz, behintzat, ez da otsorik, ez gaitzik, ez bada oilasko eta ahateentzat. Gaiari buruz lau lerro xumeren bidez zer bait agertzearren, komeni da oinarritzkoena jakitea: hegaztiei eragiten dien gaitza dela.

Hegazti-gripearen azken aldaera hilgarria duela bederatzi bat urte hauteman zen Asiako hego-ekialdean. Hainbat mila etxe-hegazitiri (oilo-oilasko, ahate eta antzarri, batik bat) eragin dio, eta haiekin batera, haien ekonomiaren euskarrietako bat hegazti-hazkuntza duten milioika familia pobreri. Asiako zenbait herritan, gainera, zenbait gizaki kutsatu eta hil da gaitzak jota. Dena dela, Asiatik kanpo, oraingo orain, arazoa animalien osasunaren alorrekoa da eta ez giza osasunaren alorrekoa.

Komunikabideen papera ez da batere lagungarria izan gauzak diren bezala deskribatzeko; aldiz, nahasmen ikaragarria piztu dute, informazio okerrak zabalduz eta birusaren leinuak eta leinuen aldaerak burugabe nahastuz beren berrietan.

Basa-hegaztiak gaitza zabaltzen?

MOEtik eta zenbait sektore insti-

tuzionaletatik zabaldu da basa-hegaztiak ari direla gaitza zabaltzen, baina egiaztatutako gertaerak ez datoz inondik ere hipotesi horrekin bat. Izan den agerraldi masibo bakarra (Txinako Qinghai lakukoa, hain zuzen) bertan iraungi da, jarraitzeko moduko inongo arrastorik utzi gabe. Indotxinatik iparralderantz eta hegoalderantz luzatzen diren migrazio-bideetan ere ez da kasurik hauteman, ez Asiako nahiz Iparramerikako Artikoa, ezta Indonesia edo Australiako hegaztien artean ere. Ez eta Iparramerikako mendebaldeko kostan ere. Aitzitik, agerraldiak anarkikoki piztu dira, han-hemenka, hegazti basatien ibilbide migratorioekin inongo zerikusirik agertu gabe.

Nabarmenezkoa da askoz ere kasu gehiago hauteman dela etxaldeetako eta esplotazioetako hegaztien artean basatien artean baino, eta piztu diren ia kasu guztiak hegaztien trafiko komertzialarekin lotutakoak izan direla beti. Gauzak horrela, ez da harritzekoa sektoreak bere ardura gainetik kentzen saiatzea eta jarduera ekonomikoak al bait luzeen iraunarazten saiatzea.

Goi-kargu batzuen jarrera arduragabea

Horregatik guztiagatik, naturaren eta hegazti basatien kontserbazioarekiko ardura duten erakunde eta partikularrek erabat arduragabetzat jo dute ez bakarrik krisiaren hasieran Europako Batasuneko goi-karguek zabaldutako informazio funtsik gabeak, baita azken asteotan Juan Jose Badiola doktoreak (Espainiako Estatuko Kontseilari eta Espainiako Albaitari-Elkargoen Kontseilu Orokorreko Lehendakariak) eta

Internet, analisi interesgarri askoren topagune

Rafa Sainz ornitologoaren idatzia jaso dugu. Baina badira nabarmendu daitezkeen beste analisi gehiago ere. Pello Zubiriak argia.com webgunean sareratu duena: "Baserritar txiki errugabeak ari dira pagatzen gripea".

Gainera, erreportaje sakon bat irakur daiteke zientzia.net webgunean, "Hegaztien gripea, pandemiaren arriskua".

Interesgarria ere Iñaki Peñak idatzitako iritzi artikulua, "Gripea bihar" izeneko idatzia, honako helbidean topatuko duzuen:

www.goiena.net/blogak/patxi/21



beste zenbaitek eginiko adierazpenak. Ez da ahaztu behar albaitarien ekonomiaren zati handi bat, Espainian, hegazti-produkzio industrialari lotuta dagoela. Eta beste hainbeste EBn ere.

Rafa Saiz Elizondo, ornitologoa
(www.sustatu.com webgunetik jaso)

Martxoaren 9an Sutegiko auditorioan, azken urteotako film labur interesgarrienak

Datorren martxoaren 9an, osteguna, film laburren emanaldi berri bat ikusteko aukera izango dugu. Sutegiko auditorioan, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Sarrerak 3 eurotan daude salgai NOAUA!ko egoitzan eta Txirristra tabernan. Takilan ere izango dira baina egunean bertan.

Aurtengoan ere, Film Laburren Zirkuitua antolatu du Topaguneak. Filmen aukeraketa Eusko Jaurlaritzaren "Kimuak" egitasmoaren lanen artean egin da, formatu ezberdinak eta kopia kopurua bermatzeko. Aurten ez dago euskaraz eginiko lanik, eta horregatik aurreko urteetan eginiko lanen emanaldia izango da Sutegikoa.

Sutegin ikusiko ditugun film laburrak

FILMA	URTEA	IRAUPENA	EGILEAK
Txotx	1998	15 min	Asier Altuna eta Telmo Esnal
Sarabe	1999	15 min	Beatriz de la Vega
Haragia	1999	13 min	Begoña Vicario
40 ezetz	1999	16 min	Asier Altuna eta Telmo Esnal
Hauspo soinua	2000	16 min	Inaz Fernandez

Sarrera 3 euro. Aldez aurretik, Txirristran eta NOAUA!n. Takilan ere salgai.

Martxoaren 17an, "Erreleboa" antzezlan

ESTILOA: komedia.

AKTOREAK: Iker Galarza,

TALDEA: Txalo Teatro.

Joseba Usabiaga.

EGILEA: Ernesto Caballero.

ZUZENDARIA: Begoña Bilbao.

Sarrera gonbidapen bidez. NOAUA!n jaso behar da gonbidapena.

Pertsona bakoitzeko, gehienez, lau gonbidapen.

Film laburren sinopsiak

TXOTX

Euskal Herri sakoneko sagardotegi batean, zurrut-giroan bildutako lagun taldea ingurune bizigarri hartako ilun aldea ezagutzera doa; aldi berean, sagardo upel eta jangai goxogoxoen artean, sagardotegiaren familia-jabeak usadioari eta negozioaren iraupenari buruzko eztabaida mahaigainera-tzen duelarik.



SARABE

Martin espetxetik atera da eta bere herrira itzuli nahi du, bere familiari egin dioten bidegabekeria batengatik mendeku hartzeko. Horretarako, bere herriaren etsai den ganadu-lapur talde batekin elkartuko da.



Gertaera hau, Euskal Herrian Erdi Aroan gertatu ziren gatazka eta borroketan oinarritzen da.

HARAGIA

Desagertuez hitz egiten dugunean, heriotza birtual batez, gorputzik gabeko heriotza batez hitz egin ohi dugu.

Baina pertsonen betirako agurra egin ahal izateko, pertsona horien hilotza, gorpua ikusi behar dugu. Pelikula honek desagertuei gorputza eta ahotsa eman nahi die.

40 EZETZ

Idi-dema batean, herri osoak egundoko dirutza handia galduko du onenentzat jotako idi-parearen alde apostu eginda.



HAUSPO SOINUA

Ustekabeko gertaera bat dela-eta, aita batek bere semea zenbait egunez uzten du aitona-amonen etxean. Bisita honek aita familiaren tradizioekin berrelkartzea eta bilobak mundu ezezagun bat ezagutzea eragingo du.

Inauteri jai koloretsua

Inauteriak ez ziren oharkabeen pasa. Goiztiarrenak, beti bezala, Udarregi ikastolako ikasleak izan ziren. Ostiralean kalejiran ibili ziren. Larunbatean, ordea, helduxea-goak izan ziren protagonistak.

Jai hau koloretsua denez, irudi asko utzi ditu. Horietako batzuk bildu ditugu orrialde honetan. Dena den, noaua.com webgunean irudi gehiago aurkituko dituzue.



Ikusmin handiko aurkezpena

Aurreko alean iragarri genuen bezala, Jabier Pikabeak "Aginaga, errioko jarduerak eta bertako hiztegia" liburua aurkeztu zuen otsailaren 24an Aginagako Apaiz Etxean.

Liburuaren aurkezpenean Jabier Pikabea ez zen bakarrik egon. Luis Mari Ormaetxea Usurbilgo alkatea, Luis Aranalde Aginagako apaiza eta Eusko Ikaskuntzako Garazi Lopezek aurkezpen ekitaldian hartu zuten parte. Aginagatar ugari hurbildu ziren



AGINAGAN BERTAN AURKEZTU ZUEN LIBURUA JABIER PIKABEAK.

bertara, baita kanpokoren bat ere. Apaiz Etxea txiki geratu zen.

Santixabelak direla, gazteei deialdi berezia

Aurreko alean aipatu genuen bezala, Santixabeletako gazte eta koadrila giroa berreraiki nahi du lagun talde batek. Jaietan gazteen-tzat ekintza gehiago egon behar dutela uste duten horiek animatu eta erakarri nahi dituzte. **Bilera martxoaren 3an** egingo da, ostirala, arratsaldeko **20:00etan Txaramuntoko lokaletan.**

Jai Batzordeari dagokionez, martxoaren 15ean bilduko da berriz ere, 19:30ean udaletxean.

Pasaiako portuan izan gara

Pasaia Gipuzkoako udalerria da eta Donostialdean dago. Herri honetan hiru auzo daude: Pasai Antxo, Pasai Donibane eta Pasai San Pedro. Denera 17.056 biztanle daude.

Bertan Oiartzun ibaia itsasoratzen da Kantaurre itsasora. Kanalararen alde batean Uliak dago eta beste aldean Jaizkibel.

Itsasontziren bat gauean galduta baldin badabil, Ulian dagoen La Plata itsasargia ikusi eta badaki Pasaian dagoela.

Jaizkibelen semaforo handi bat dago eta kapitainek argi berdea ikusi behar dute, portura sartzeko edo portutik ateratzeko.

Alde batetik Praktikoak daude. Beraien lana garrantzitsua da. Itsasontziak portura sartzeko edo itsasoraino ateratzeko, oso ondo jakin behar dute gidatzen eta portua ederki ezagutzen dute. Bestetik, atoi-ontziak ere kaian ikusten dira. Txikiak dira, baina sekulako indarra dute itsasontzi handi bat eramateko.

Pasaian merkagai asko garraiatzen dira: txatarra, ikatza, burdina, altzairua, gasolina, gasoleoa, kotxeak eta abar. Merkagai hauek zamatzeko garabia handiak erabiltzen dituzte.

Gai hau bukatzeko, portuan dauden lantegi batzuk aipatuko ditugu:

Zentral termikoa, ikatzaren sua eta uraren lurrina erabiliz, argindarra sortzeko eta etxe guztietara eramateko. Untziolak, itsasontzi berriak egiteko edo zaharrak konpontzeko. Eta arrantzaleen lonja, arrainak itsasontzietatik deskargatu ondoren, arrain-saltzaileek arraina erosteko.

L.H. 4.mailako ikasleak



**PASAIKO PORTUA EZAGUTU ETA ARGAZKIAK ATERATZEKO
AUKERA IZAN ZUTEN UDARREGIKO IKASLEEK.**

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, “Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak”... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua oparituko dizugu.

Bazkide egin zaitez!

Noaua!

36 euro urte osorako

Izena: _____

1.Abizena: _____

2. Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Telefona: _____

E-posta: _____

Kontu Korronea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Iazko denboraldikoa errepikatu nahian

Jubenil mailan lehen urtea badute ere, maila bikaina ematen ari dira Usurbil Kirol Elkarteko gazteak. Denboraldi honetan Gipuzkoako txapelketan orain arte jokatu dituzten 15 partidak irabazita, eskubaloitako talde sendoa dutela erakutsi dute eta txapelketa eskuratzeko hautagai nagusiak dira. Horretarako, bigarren postuan dagoen Gatz Museoa Jakion Arrasateko taldea gainditu beharko dute hurrengo asteburuan.

Herriko gazte hauek irabaztera ohituta daude. Iazko denboraldian kadete mailako Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuten partida guztiak irabazita eta aurtur jubeniletara igo badira ere bide beretik jarraitzen dute. Jose Lorenzo "Manzano" entrenatzailearen aginduetara maila igoera horri aurre egiteko ez dute arazorik izan, eta orain arteko norgehiagokak gol alde handiaz irabazi dituzte.

Andoainean jokatu zuten azken neurketan pasa den asteburuan Leizaran taldearen aurka eta garaipen erraza eskuratu zuten, 22-35. Hala ere, ez zuten neurketa onegia jokatu. Atsedenaldira 10 goleko abantailarekin iritsi baziren ere (11-21), bigarren zatian ez ziren nahi bezain ondo ibili eta ez ziren gustura gelditu ez entrenatzailea, ezta jokalaria ere.

Entrenatzailearen esanetan honelako partidetan tentsioa mantentzea asko kostatzen zaie, bi taldeen arteko aldea handia baita. "Maila hau txikia gelditzen ari zaigu. 3. postutik atzera dauden taldeak erraz gainditu ditugu orain arte eta jokalaria partidaren mantentzea ez da erraza. Neurketa hasi aurretik erraz irabaziko dutela dakitenez beste helburu batzuk jarri behar izaten dizkiet beraiei maila eman ahal izateko".

Hala ere gogor entrenatzen ari direla aitortu digu Manzanok. Astearen hiru aldiz biltzen dira Oiardo kiroldegian eta entrenamenduetan partidetan baina esfortzu handiago egin behar izaten dute. "Oso ondo ari dira lanean. Besteak baino hobeak direla jakin arren kalitate handiko entrenamenduak egiten ari gara. Gero partidetan erabiltzeko sistemak landu, bost bosten aurkako partidak egin, banan banako defentsaren aurrean egin behar-



IAZ BEZALA, AURTEN ERE ERAKUSTALDI EDERRA ESKAINTZEN ARI DIRA.

rekoa landu... Partidetan edukitzen ez dugun tentsioa entrenamenduetan izaten dugu".

Asteburu honetan, Oiardon, Urolaren aurka

Asteburu honetan Urolaren aurka jokatuko dute Oiardon kiroldegian, baina hurrengo neurketa garrantzitsuagoa izango da lehenengo hau baino. Izan ere, Arrasate aldean jokatuko dute 2. postuan dagoen Gatz Museoa Jakion taldearen aurka. Hauek usurbildarren aurkako partida ez beste guztiak irabazi dituzte, eta sailkapenean bi puntura dituzte. Hala ere Manzanoren esanetan ez lukete partida irabazteko arazorik izan behar. "Etxeko neurketa Urnietan jokatu genuen beraiei

aurka eta 3 minutu faltan 8 goleko aldea genuen. Azken minutu horietan aldaketekin eta lasaitzearekin bi golera gerturatu ziren. Hala ere, beraiek baino talde hobeak dudala uste dut nik".

Aurtengo denboraldia oraindik amaitu ez bada ere, hurrengo urtean Euskal Ligan jokatzeko da talde honen helburua. Horretarako kadete mailako taldeak lortzen duena ere garrantzitsua izango da, bi taldeen emaitzak kontuan hartzen baitira igoera lortzeko orduan. "Guk lehen postuan amaitu eta kadeteek 4. postua eskuratzen badute Usurbil K.E. Euskal Ligan izango dela uste dut" dio Manzanok.

JOSU ARANBERRI

1. Errejonial taldeak Irunen jokatuko du

Usurbil Futbol Taldeko 1. Errejonial mailako taldeak beste partida garrantzitsu bat jokatuko du asteburu honetan Irunen. Behobia taldea izango dute aurrez aurre eta neurketa parekatua izan daiteke. Izan ere, bi taldeek 34 puntu dituzte sailkapeneko laugarren eta bosgarren postuetan kokatuta daude. Espero dugu, herriko taldeak azken hiru partidetak bide bera jarraitu eta punturen bat lortzea. Emakumezkoen taldeak, berriz, Ostadarren aurkako "derbia" jokatuko du Lasarte-Orian.

Igande honetan Lilaton lasterketa Donostian

Igande honetan, martxoaren 5ean, izango da emakumeek bakarrik parte hartzen duten Lilaton lasterketa. 17 urte pasa dira lasterketa hau lehen aldiz antolatu zutenetik eta igande honetan ere emakume ugari bilduko dira Donostian. Alderdi Ederren izango da irteera 11.00etan. Ondoren Donostia erdiko kaleetan zehar ibiliko da eta 5 kilometro egin ondoren helmuga Igantzia kalea izango da (Udaletxe atzean). Izen ematea 5 euro izango da aurretik (10 pertsonako taldeek 4 euro) eta 6 euro egunean bertan.

Aholkua !

Gimnasioak: entrenamendu eraginkorraren ardatzak

Ariketa fisikoa egitea botika hartzea bezala da: mesedea atzemango bada, era egokian hartu behar da. Sasoian jartzeko ez da aski gimnasio on bat aukeratzea. Ariketa fisikoa ahalik eta gehien aprobetxatu behar dira entrenamendua eraginkorra izango bada. Apurka-apurka eta erantzukizunez egin, lesiorik gerta ez dadin.

- Ariketa fisikoa egiten ohitura gutxi duen pertsonak, luzaroan ezer egin gabe egon denak, neurriz hasi behar du eta aski dira astean hiru egun, txandaka.

- Astean 45 minutuko hiru saio egitea eraginkorrago da astean behin lau ordu egitea baino.

- Entrenamendua egiteko, aukeratu ibilbide zehatza eta ongi markatua. Ez joan era aleatorioan aparatu batetik bestera eta jarduera batetik bestera.

- Gogoan izan sasoi fisikoa lortzeko hiru zutabeak: ariketa, nutrizioa eta atsedena.

Helburuak betetzea

- Zure helburua kilo batzuk galtzea baldin bada, eman lehentasuna ariketa kardiobaskularrei (zinta, bizikleta estatikoa, aerobic, spinning...).

- Pisua irabazi nahi baduzu, pisuekin lan egin batez ere, ariketa anaerobikoa, eta murriztu ariketa kardiobaskularra, energia guztia muskuluak garatzen erabiltzeko eta bolumena handitzeko.



Nutrizioa

- Sartu zure dietan karbohidrato konplexuak (arroza, pasta, patatak, lekiariak...), proteinak (arrautzak, haragia, arraina...) eta jakina, ez ahaztu fruitu eta barazkiak, zuntz, bitamina, mineral eta "gantz onen" iturri baitira.

Eguneko goardiako farmaziak

Martxoak 2, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 3, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 4, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 5, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 6, astelehena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 7, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 8, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 9, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 10, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 11, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 12, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola eguneran.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Autobus ordutegia
Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40	08.05	08.25	
08.00	08.25**		
08.00	08.20	08.25	08.45
08.40	09.05	09.25	
09.00	09.20	09.30	
09.00	09.20	09.25	09.45
09.40	10.05	10.25	
10.00	10.20	10.25	10.45
10.40	11.05	11.25	
11.00	11.20	11.25	11.45
11.40	12.05	12.25	
12.00	12.20	12.25**	
12.00	12.20	12.25	12.45
12.40	13.05	13.25	
13.00	13.20	13.30	
13.00	13.20	13.25	13.45 #
13.40	14.05	14.25	
14.00	14.20	14.30**	
14.00	14.20	14.25	14.45
14.40	15.05	15.25	
15.00	15.20	15.30	

■ Soilik larunbata gauze # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiaro

■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiaraino

Harremaketarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Autobus ordutegia
Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05	07.30	
06.45	07.05	07.10	07.30
07.15	07.35	08.00	
07.45	08.05	08.30	
07.45	08.05	08.15	08.40
08.15	08.35	09.00	
08.45	09.05	09.30	
08.45	09.05	09.15	09.40
	09.30	09.35	10.00*
09.45	10.05	10.30	
09.45	10.05	10.15	10.40
	10.30	10.35	11.00
10.45	11.05	11.30	
10.45	11.05	11.15	11.40
11.45	12.05	12.30	
11.45	12.05	12.15	12.40
12.45	13.05	13.30	
12.45	13.05	13.15	13.40
	13.30	13.35	13.55*
13.45	14.05	14.30	
13.45	14.05	14.15	14.40

*Aiatik dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauze

Harremaketarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

EuskoTren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10:03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17*	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.27	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik

Ez da Usurbilen geratzen

Harremaketarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Agenda !

Martxoak 2, osteguna

Euskal paisaien historia eta bilakae-rari buruzko hitzaldia.

Jakoba Errekondo izango da hizlaria. Sutegiko auditorioan, 19:30ean. Antolatzailea: Nafartarrak.

Martxoak 5, igandea

Mendi irteera Lezora. Usurbildik Pasai Donibanera kotxez, Lezora mendiz eta buelta autobusez Pasaiara. Handik Usurbila kotxez. Udarregi ikastolako mendi-taldearen irteera.

Martxoak 6/ martxoak 17

Oinarritzko Internet Ikastaroa. Asteleheneetik ostiralera, 16:00/18:00. 20 orduko ikastaroa KzGunean.

Martxoak 9, osteguna

Film laburren proiektzioa. 20:00etan Sutegin. Antolatzailea: NOAUA!

Martxoak 17, ostirala

"Erreleboa" antzezlan 22:30ean Sutegin. Sarrera gonbidapen bidez. NOAUA!n jaso behar da gonbidapena. Pertsona bakoitzeko, gehienez, lau gonbidapen.

Udalekuetarako deialdia

Ikastolen Elkartek aisialdiko begirale eta zuzendariak behar ditu uztailean egingo diren euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako. Beharrezkoa: euskalduna izatea, aisialdian esperientzia izatea eta ingelese edo frantsesa menderatzea (udaleku horien kasuan). Izena emateko:

E-posta: aalberdi@bie.ikastola.net
Telefonoa: 94 4354340 (Amaia)

Literaturaren txokoa ! **Robert Caparen Euskal Herria**

Edo r t a
Jimenezek

Robert Capa-ren biografia idatzi du. Endre Ernő Friedmann, Robert Capa goitizenaz ezagunagoa, argazki kazetaritzaren gurasoetako bat izan zen, eta bere garaian "munduko argazkilaririk onena" izendatu zuten. Hungarian jaioa 1913an eta Alemanian ikasia, handik Frantziara joko zuen, eta naziengandik ihesi



berri ere Ameriketara.

Argazkilari honen inguruan bi liburu besterik ez da idatzi orain arte, biak ingelesez. Hala ere, idazleak ez du aurreko horien euskarazko laburpena egin nahi izan; eta ikerketaren bidez lortutako datu berriak jaso ditu lanean. Hala, liburuan Euskal Herrian ateratako argazkiei eman die garrantzia. Horretarako, Parisen dauden Regards aldizkariaren artxiboetara jo zuen: Bizkaian egindako 700 argazkitik gora aurkitu zituen.

Egin kontu !

Aromaterapia ikastaroa
Etumeta euskaltegian

Usurbilgo euskaltegiak aromaterapia ikastaroa antolatu du. Ikastaroa egun bakarrekkoa izango da eta martxoaren 7an egingo da euskaltegiaren egoitzan bertan. 20:00etatik aurrera, Etumeta euskaltegiaren egoitzan bertan, Txaramuntoko lokalean. Parte hartu nahi duenak aurretik eman behar du izena: martxoaren 3a baino lehen, 943 372 001 telefono zenbakira deituz. Tailer hau euskara hutsez egingo da.



MARTXOAREN 3A BAINO

LEHEN EMAN BEHAR DA IZENA.

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 • ASTEASU
☎ 943 69 68 52 • 620 800 186

ETXEBIZITZA

- Gazte euskaldun bat naiz eta Usurbilen edo inguruetan, bakarrik edo konpartituta etxe bat alokatuko nuke. 943361229 Joseba.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziduna. Interesatuak deitu 616273785 telefonor
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906 / www.upriding.com webgunea.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik osti-

ralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.

- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitean. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Antxeta tabernan bi langile behar ditugu: kamarera bat eta sukaldean aritzeko langile bat. 943 37 03 44.
- Arraindegia batean goizez lan egiteko pertsona bat behar da. 616 735 047.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza .645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. Gure telefono zenbakia: 667 694 049.
- Urtarrilaren 21ean iluntzean 9 urteko mutiko baten bizikleta txuri-gorria galdu genuen frontoi atzean. Aurkitu duenak deitu 943360551.
- Pasa den astean haur bufanda bat galdu da. Urdin iluna eta bi marra txuri ditu. Ikastolatik plazarako bidean galdu da. Bilatu duenak 943370420 telefonora deitu. Mila esker.
- Graduatutako betaurrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!r ekarri mesedez.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa eta prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta umea modu onean saltzen dira. 657 633 461.
- Urtarrilaren 25ean txamarra bat galdu zen frontoi atzeko jolas-lekuan. Urdin ilun kolorekoa eta 10 urteko mutil batena. Aurkitu baduzu NOAUA!r ekarri.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !!

Zorionak Eider!!!

Muxu handi bat denen partez eta ondo pasa zure urtebetetze egunean. Ez pentsatu gonbidatu gabe pasako zarenik, deseatzten gaude ospakizunetarako!



Zorionak!!!

A ze hirukotea! Martxoaren 3, 5 eta 8an ez gea zuetaz ahaztuko. Beti bezain guapo zaudete... Zorionak Iñaki, Mikel eta Kerman!



HILDAKOAK

- Pedro Arruti Urruzmendi

85 urte, Ibarrola Txiki baserrikoa
2006ko otsailaren 25ean

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
2012 ARRI ETXEA 37 KALEZAR

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA
Kale Nagusia, 1
Tel./Faxo: 943 365 125
Móbil: 629 420 565 - 649 435 470

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
OSU
943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USBIL


ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL



Lehiaketa

NOAUA! eta Udalaren ekimenez,
"Erreleboa" antzezlanak ikusteko aukera
izango dugu martxoaren 17an,
Sutegiko auditorioan. Sarrera doanekoa
izango da. NOAUA! bertan eskura
daitezke gonbidapenak,
pertsonei bakoitzeko gehienez lau.

Hala ere, e-mail bat
bidaltzen digutenen artean lau gonbidapen
zozketatuko ditugu. "Erreleboa" ikusi nahi
dut esaldia bidali elkarte@noaia.com
helbidera eta martxoaren 17ko zozketan
hartuko duzu parte.



Bidali e-maila erredakzioa@noaia.com.

Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).

ZINEA EUSKARAZ
Filme laburrak Zinebela 2004

MARTXOAK 9, 20.00etan SUTEGIN

16'	16'	15'	15'	13'
HAUSPO SOINUA	40 EZETZ	TXOTX	SARABE	HARAGIA
INAZ FERNANDEZ	ASIER ALTUNA TELMO ESNAI	ASIER ALTUNA TELMO ESNAI	BEATRIZ DE LA VEGA	BEGO VICARIO

EGIN TxOTx!! sagardotegi garaian



*Txotxetik sagardoa
garrantu usadioa!*

**AIALDE
BERRI**

Urtarrilaren 15tik irekita!

Santutenea, Tel.: 943 365 031 Mobilak: 607 027 751



LARRE-GAIN
TOLXER SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera txotx garaia
(Asteleheneretan itxita)

Larre-Gain Baserria Ereñozu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



**ASTIAZARAN
SAGARDOTEGIA
IRUIN**

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.

Urtarrilaren 9-an
irekiko dugu
tel.: 943 36 12 29



ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena ezik.

Oztaran Bailara • URNETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



SAIZAR
Sagardotegia

Kale Zahar Auzoa, 38
20170 USURIL
GIPUZKOA

Tel: 943 362 228
www.sidrassazar.com



OTEGI
Sagardotegia

Urte guztian irekita Astelehena ezik

Solla onoa
Baserrian
Zabaleta auzoa
Lasarte-Oria
Tel.: 943 365 029

